# IZURTZA



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrean harrizko dorrea arbola berde biren artean mendi ganean; mendian ehiztari bat dago urrezko lantzaz basurde baltza zauritzen; basurdeak urrezko profila dauka, eta txakur bik jarraitzen deutsie; txakurrek orban baltzak ditue eta bakotxak alde batetik erasoten deutso basurdeari

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

De oro, torre de piedra entre dos árboles de sinople, sobre una montaña, en la cual se halla un cazador hiriendo con lanza de oro a un jabalí de sable, perfilando de oro, persiguido por dos perro de plata con remientos negro que le acometen cada uno de un lado.

## AITAMEN HISTORIKOA

Izurtzako eleizatea historiaren joan-etorrian erakunde-antolaketa zabalagoaren barruan egon da, Durangoko merindadearen barruan, hain zuzen be.

Ezinezkoa da agirietan oinarrituta Izurtzako eleizatea noiz sortu zan jakitea, hau da, ez dakigu Izurtzako bizilagunek noiz lortu eben muga zehatzak eukazan erakunde politiko autonomoa sortzeaz ganera, erakunde politiko orokorragoek, Geredìaga edo Gernikako Batzarrek adibidez, eleizatea aintzat hartzea.

Durangoko merindadeko artxiboan dagozan agiririk zaharrenak XVI. mendekoak dira, eta orduko merindadearen garapena eta jarduerak bete-betean egozan; Izurtzako Udal Artxibokoak, ostera, XVII. mendekoak dira. Gauzak holan, artxiboetan ezinezkoa da eleizatearen sorrerari buruzko agiririk lortzea, Izurtzak XV. mendearen erdi inguruan lortu eban-eta Durangoko merindadeko eleizate izatea.



## RESEÑA HISTÓRICA

La anteiglesia de Izurtza se encuadra a través de la historia en un marco institucional más amplio, la merindad de Durango.

Resulta imposible determinar por documentación propia o interna, desde cuando estaba estructurada como tal la anteiglesia de Izurtza; esto es, desde cuándo los vecinos de Izurtza constituyen una organización política autónoma que comprenda un territorio determinado y que, además, sea reconocido como tal anteiglesia por órganos políticos de ámbito más general, como eran las Juntas de Gerediaga o las de Gernika.

Los documentos más antiguos que se conservan en el Archivo de la merindad de Durango justamente alcanzan al siglo XVI, cuando ya la merindad estaba en pleno desarrollo y ejercicio, y el documento más antiguo del Archivo Municipal de Izurtza es del s. XVII. Izurtza obtuvo reconocimiento como anteiglesia de la merindad de Durango a mediados del siglo XV.

## IKURRIÑA

Deskribapena: oihal zurian erronboak, moreak, gorriak eta urdinak, guztira hogeita hamabost. Erdian udalerriaren armarria.



## BANDERA

Descripción: sobre un paño blanco, se combinan rombos de color morado, rojo y azul, sumando treinta y cinco: siete a lo largo y cinco en el ancho, ocupando el centro el escudo municipal.